

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT) 2013ko 1. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %2,3 jaitsi ziren 2013ko lehenengo hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,4 nominala hazi da

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2013ko lehen hiruhilekoan, salmenta nominalak %2,3 jaitsi ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, eta lan-egutegi homogeneoetan. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %2,8 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,4 nominala igo da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. 1. hiruhilekoa. 2013(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-2,3	0,4	-5,5	0,2
Araba	-1,6	0,0	-4,9	-1,1
Bizkaia	-2,5	0,3	-5,6	0,7
Gipuzkoa	-2,4	0,8	-5,7	0,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-1,6	0,6	-4,8	-0,2
Elikagaietan espezializatuta	2,2	1,3	-1,2	0,7
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-4,1	-0,2	-6,8	-1,0
Beste produktuak	-3,7	1,4	-6,6	0,0
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-9,8	-3,4	-12,2	-3,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-5,1	2,4	-8,0	0,4
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-2,5	-1,5	-5,1	-1,3
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	15,1	3,8	12,4	5,4
Automoziorako erregaia	0,6	1,0	-2,8	1,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-2,8	1,0	-5,8	-0,1
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-4,6	-1,5		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %1,6 murriztu ziren 2013ko lehen hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %3,7 jaitsi ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %0,6 igo, beti ere 2012ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %2,2 handitu zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %4,1 murriztu. Gainerako produktuen txikizkakoan %15,1eko igoera dago gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatua, eta indar ezberdinetako jaitsierak gainerako sektoreetan. Etxeko ekipamenduaren espezializatua %5,1eko jaitsiera; pertsonaren ekipamendua %9,8koa; kontsumoko beste ondasunetan %2,5koa.

2013ko lehen hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %2,5 murriztu dira Bizkaian urte artean. Gipuzkoan %2,4 jaitsi ziren salmenta nominalak eta %1,6 Araban.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %5,5 murriztu ziren lehen hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %5,8ko jaitsiera erreala –prezio finkoetan- 2012ko lehen hiruhilekoaren aldean.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %4,8 izan zen; Gainerako produktuetan %6,6, 2012ko hiruhileko beraren aldean, eta automobilgintzarako erregai-salmentetan %2,8.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoak negatiboak izan dira bai espezializatuan %1,2, bai elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %6,8. Gainerako produktuetan jaitsierak denetan, Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan izan ezik, zeina %12,4 hazi baitzen. Etxearen ekipamenduan %8,0ko jaitsiera; pertsonaren ekipamenduan %12,2koa; kontsumoko beste ondasunetan %5,1ekoa, beti termino errealetan.

Hiru lurraldeetan izan zen jaitsierarik salmentetan termino errealetan: Bizkaian %5,6, Gipuzkoan %5,7, Araban %4,9.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,2ko igoera izan da aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AE osoan, 2013ko lehen hiruhilekoan, txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %1,5 murriztu zen 2012ko laugarrenaren aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua